

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak helburu bikoitza du. Pertsona helduen beharrak asetuko ditugu, behar duten laguntza eskainiz, eta gainera immigranteei laguntza emango diegu, lan-merkatuan sartuko diegu, bizitza dezente bat izan dezaten eta gizarteratu daitezen. Pertsona nagusiei **konponbide eta esperientza berriak** eskainiko dizkiegu, hainbat sailetan laguntza eskainiz.

Gure enpresa erakargarria izan daiteke ez dugulako zerbitzu bakarra eskaintzen. Etxeko eginkizunetan lagundu ahal dugu, baina baita konpainia eman, edo kirola egitera lagundu. Zerbitzuak bezeroen beharretara egokituko ditugu. Horregatik, **bezeroen hainbat behar ase** genitzake **modu pertsonalizatuan**. Oinarrizko zerbitzu batzuk eskainiko ditugu, eta, nahi izatekotan, bezeroak hautazko zerbitzu bat edo batzuk gehitu ahalko dituzte haien planean.

OINARRIZKO ZERBITZUAK	
OSASUN ARRETA	<ul style="list-style-type: none">- Higiene zereginetan lagundu.- Medikazio administrazioa eta kontsumoaren kontrola.- Mediku-kontsultara laguntzea, aldizkako kontsultak edo azterketak egiteko.
EGUNEROKO JARDUETARAKO BERREGOKITZEA	Erabiltzaileen eguneroko jardueretarako independentziarik handiena garatzea, higienerari, mantenuari, desplazamenduei eta abarri dagokienez.
KONPAINIA ZERBITZUA	Konpainia behar duten guztian, bai medikura joateko, familia-bileretara joateko edo parkera joateko zein paseo bat emateko.
HAUTAZKO ZERBITZUAK	
GARBIKETA	Etxebizitzaren oinarrizko zereginak, hala nola erraztea, harrikoa egitea, oheak egitea, arropa garbitzea...
ARIKETA FISIKOA	Oinarrizko mugimendu fisiko eta ariketa fisikoak, sasoiaren egoteko (Gradu III-ko pertsonetan ez).


Eusko Jaurlaritzak laguntzak eskaintzen dituenez zerbitzu hauetarako, bezeroek ez dute asko ordaindu behar, gure **prezioak ez baitira oso garestiak** izango, beste puntu bat gure alde. Gainera, **zerbitzua kontratatzeke erraztasuna** eskainiko dugu, sortutako sare sozialei esker bezeroak informazioa izan dezaketelako etxetik, ofizinarara joatearen beharrik gabe.

Baina, garrantzitsuena enpresaren **balio soziala** da. Ez dugu bakarrik pertsona nagusiak lagunduko, baita immigranteak ere. Agureen beharrak asetzen ditugun heinean, lanpostuak sortuko ditugu, eta lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonak lagunduko ditugu, baita gizarteratzen lagunduko diegu ere.


Azken urteotan, bai helduen bai immigranteen biztanleria igo egin da, hurrengo grafikoek irudikatzen duten bezala:

65 urte eta gehiagoko espainiako biztanleriaren proportzioa

Proporción de la población de España de 65 años y más



Proporción de personas mayores de 64 años




2019an, biztanleen %16'2a 64 urte baino gehiagokoak izan ziren, INE-ren arabera

(Iturria: https://www.ine.es/prodyser/espa_cifras/2019/12/)

Emigrazioaren eta immigrazioaren bilakaera Espainian


Evolución de la emigración e inmigración en España

De cualquier nacionalidad



Gainera, etorkizuneko proiektzioen arabera, immigranteen biztanleria igoz joango da hurrengo urteetan:

Immigranteen eta emigranteen proiektzioa Espainian 2070era arte



Logikoki, ezin da inoiz jakin ziur nola joango diren gauzak gertatzen diren arte, baina Espainian badago jada inmigrante asko, eta gai honen arazo nagusia lana ez daukatela da. Izan ere, Covid-19-ak sortu duen egoera dela eta, 2020ko bigarren hiruhilekoan gutxieneko langile historiko bat egon zen Espainian. Egoera normaletan lana aurkitzea zaila bada, orain dugun egoerarekin askoz zailagoa, eta hizkuntzaren kontrol txikiagoa eta ikasketa gutxiago dituen batentzat, are zailagoa.

Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela pertsona mota hauekin lan egitea. Eta, helduek gero eta laguntza gehiago behar dutenez, uste dugu egokia dela bi sektore hauek biltzea. Gutxiengo hizkuntzaren kontrola duten immigranteak hartuta, formazio txiki bat eskainiko diegu, hilabete batekoa, eta gero lan egiten hasiko dira. Modu honetan, bai agureak bai immigranteak laguntzea lortuko dugu.